

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AMURRIOKO UDALA

#### **Behin betiko onespena ematea udal jabari publikoaren erabilera pribatuaren eta aprobetxamendu bereziaren 2019ko tasa ordaindu behar dutenen eroldari**

Miren Josune Irabien Marigortak, Araban dagoen Amurrioko Udaleko alkate naizen honek, Jakinarazten dut:

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2020ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, behin-behineko onespena eman zion udal jabari publikoaren erabilera pribatuarengatik eta aprobetxamendu bereziarengatik tasa ordaindu behar dutenen 2019ko eroldari (2020/1/S903 espediente). Onspen erabaki hori 2020ko otsailaren 10ean argitaratu zen ALHAOn (16. zenbakia). Erabaki horren aurka inolako erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin-behineko erabaki hori behin betiko bihurtzen da, eta hala jendaurrean jakitera ematen, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek, Arabako zergei buruzkoak, 98.3 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

2020ko martxoaren 16tik maiatzaren 15era (biak barne) arteko egun baliodunetan ordaindu ahal izango dira borondatezko epean udal jabari publikoaren erabilera pribatuaren eta aprobetxamendu bereziaren 2019ko tasaren ordainagiriak.

Tasa hori ordaindu behar dutenek zerga zorra Laboral Kutxak Amurrion dituen bulegoetan (Mendiko kalea, 1) ordaindu ahal izango dute, astelehenetik ostiralera, 08:30etik 10:30era, adierazi den epean.

Epe hori igarotakoan, ordaindu gabeko kuotak kobratzeko premiamenduko betearazte bide administratiboari emango zaio hasiera, eta kobratu beharrekoari ehuneko 20ra arteko errekar-gua aplikatuko zaio, indarrean dagoen Zerga bilketarako araudi Orokorrean ezarritako xedapenekin bat etorritik; errekar-gu hori eta luzapenarena bateragarriak dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Amurrio, 2020ko martxoaren 3a

*Alkatea*

**MIREN JOSUNE IRABIEN MARIGORTA**